

GUKA



OSPATU MAITASUNA



bqd bidaiak
viajes ~ travel

BQD
bidaiak



Adituak gara bidaia handiak eta esperientzia ahaztezinak antolatzen. Zerbitzu onena eskainiko dizugu, zure eztei bidaia berezia eta ahaztezina izan dadin.

📍 Txomin Agirre 1
ZUMAIA

☎ 943-84 53 96

✉ zumaia@bqdbidaiak.com

🌐 bqdbidaiak.com

📷 [@bqd_bidaiak](https://www.instagram.com/bqd_bidaiak)

📘 [bqdbidaiak](https://www.facebook.com/bqdbidaiak)

✂ [BQDBidaiak](https://www.whatsapp.com/channel/00251300000000000000)



Arratsaldeko ezkontza baterako protokoloa

Noiz edo noiz jasoko zenuen arratsaldeko ezkontzaren baterako gonbidapena. Hori dela eta, zalantza handi bat izango zenuen ziurrenik buruan: «Nola jantzi behar dut?». Jakin ezazu badela horrelako kasuetarako protokolo bat.



Ziurrenik izango zinen ezkontza batzuetan, baina horietako gehienak, denak ez esateagatik, eguerdian ospatuko ziren. Dena den, noiz edo noiz jasoko zenuen arratsaldeko ezkontzaren baterako gonbidapena. Hori dela eta, akaso, galdera bat izango zenuen buruan: «Nola jantzi behar dut?». Jakin ezazu badela horrelako kasuetarako protokolo bat.

Ezkontzetan, ezkongaeiek finkatzen dute ekitaldiaren formaltasuna, eta gonbidatuek eskaera edo jarraibide horietara moldatu behar izaten dute. Horregatik da garrantzitsua jarraibideak ezagutzea, gainontzeko gonbidatuen arretarik ez erakartzeko. Hona hemen ezkontzetako zazpi arau nagusiak:

Ez zuriz, ez kolore argiz

Ezkontza guztietarako balio duen arau unibertsala da, eta balio du arratsaldeko ezkontzetarako ere. Xehetasun txikietarako egokia da kolore zuria, hala nola osagarrietarako, brodatuetarako edo estanpatuetarako. Dena den, zuriak ez diren kolore guztietako jantziak baimenduta daude. Hala ere, arratsaldeko ekitaldia den

kasuetan, litekeena da erosoago sentitzea tonu ilunagoekin, hala nola marroi, txokolate, urdin, berde... koloreko jantziekin. Kolore beltzak eztaba da sortzen jarraitzen badu ere, gaueko ezkontza izanik, hauta dezakezu. Beltza bereziki egokia da ezkontza formaletarako, gauekoetarako edo etiketa kidea duten ezkontzetarako.

Ehun bereziak

Ehun berezi batekin egindako soinekoak berehala igoko du estilismoaren maila, eguneko ezkontza batean erabil ditzaitezun osagarri deigarrietara jo beharrik gabe; adibidez, pame-la handi bat. Ehunik egokienak honako hauek dira: zeta, tenperatura desberdinetara egokitze-ko duen gaitasunagatik aukera moldakorra da urtaro desberdinetako ezkontzetarako; gaza, ehun arin eta zeharrargia denez, ukitu etereo eta erromantikoa ematen dio look-ari; tertziope-loa, berriz, aproposa da ekitaldi formaletarako eta hotza egiten duen hilabeteetarako.

Soineko luzeak

Eraman daitezke gaueko ezkontzetara. Midi luzerodunak –hanka erditik orkatilarainoko luzera duten soinekoak– egokiak dira eguneko zein arratsaldeko ezkontzetarako, eta ez duzu izango protokoloarekin huts egiteko arriskurik. Baina soineko luzeak, lurrerraino-koak, gustatzen baldin bazaizkizu, jakin behar zenuke arratsaldeko ezkontzak ez direla horrelakoak janzteko une egokiak. Dena den, kontuz; izan ere, batzuetan nahasmena sor daiteke arratsaldeko ezkontza baterako diseinu egokiaren eta ekitaldi baterako egokiagoak direnen artean. Adibidez, hobe da eskote handiegiak edo hanketako irekidura handiak

saihestea. Soinekoak ez baldin bazaizkizu gustatzen edo horiekin ez bazara eroso sentitzen, trajeak ere aukera ona dira arratsaldeko ezkontzetarako.

Distirak

Eguneko ezkontzetarako distiradun jantziak gomendatzen ez diren arren, arratsaldeetan edo gauetan erabil daitezke halakoak, beti ere distira neurrian egiten baldin bada. Aukeratu xehetasun sotilak dituzten soinekoak, harribitxiak edo lentejuelak neurri diskretuan dituztenak. Soineko soilagoa ere hauta dezakezu, eta osagarrien bidez sartu distira pixka bat. Oreka lortzea da gakoa.

Burukoak

Normalean, zenbat eta beranduago izan ekitaldia, orduan eta txikiagoa izango da burukoak. Pamelak eta hegal handidun burukoak eguneko ezkontzetarako utzi behar dira. Kasketeak, diademak, turban-teak eta hegal laburdun beste diseinu batzuk proposak dira arratsaldeko ezkontzetarako.

Oinetakoak eta osagarriak

Gaueko ezkontzetan, jantziei erreparatu behar zaie ehunagatik, siluetagatik eta luzeragatik. Horregatik, inoiz baino garrantzitsuagoa da bitxietan, poltsetan eta zapatetan jartzea arreta. Bitxiek distira izan dezakete, baina soinekoak xehetasun distiratsuren bat baldin badauka, hobe da pieza diskretuagoak aukeratzea. Poltsetan, berriz, oso egokiak dira *clutch* motakoak. Zapatei dagokienez, itxiak dotoreagoak izaten dira, eta eguneko ezkontzetan ez bezala –takoia ez du handia izan behar–, 10-12 zentimetro-ra arteko takoia izan dezakete.

Makillaje naturala

Eguneko ezkontzetarako makillajeak eta orrazkerak hautatzerakoan, naturaltasuna, diskrezioa eta dotorezia izan behar dira kontuan. Arratsaldeko ekitaldien kasuan ere, gidalerro horiek bete behar lirateke, baina ukitu bereziagoren bat gehitu dakioke, hala nola izur solteak, ile bildu ari-nagoak...



Ehun berezi batekin egindako soinekoak berehala igoko du estilismoaren maila

Xehetasun txikietarako egokia da kolore zuria



EZKONTZAK | HAURREN ERRETRATUA |
BIKOTEAREN ERRETRATUA |
JAUNARTZEAK | DRONAREKIN IRUDIAK

Olatz plaza, 5 behea | Azpeitia
943-81 51 42 | estudio@fotoangel.es

  www.fotoangel.es

«Jantzigintza neurrira egiteko ohitura ez da galdu»

Mari Karmen Bakedano Jostuna

Amaren aldeko familia Zumaiakoa du Mari Karmen Bakedanok (Donostia, 1965), eta hamaika uda igaro ditu kostaldeko herrian. Txikitatik izan du joskintzarako zaletasuna, afizioa ofizio bihurtuz. Ezkongaien jantziak sortzen ere eskarmentu handikoa da; bezeroak beren egunik berezienetan jantzi izan ditu.



Urrestilla errepidea z/g | AZPEITIA
943-81 11 80
info@hotellarranaga.com
www.hotellarranaga.com



Noiz egin zenuen ezkongai barentzako lehen soinekoa?

Lehen soinekoa nire lagun barentzat egin nuen, 1993an, 27 urte nituela. Bere ideia izan zen; proposamena egin zidan eta nik pozarren onartu nuen. Geroztik, soineko asko egin ditut; ez nuke jakingo zenbat esaten, baina asko. Neure tailerra izateaz gain, emaztegai dendetan ere lan egin izan dut, soinekoak neurritara eta konponketak egiten.

Gizonezkoentzako trajeak ere egiten al dituzu?

Gizonentzat jakak, berokiak eta prakak egin izan ditut. Baina gizonezkoen ezkontza trajea bakarria egin dut, ilobarentzat. Illobak oso argi zeukan trajea nolakoa izatea nahi zuen, eta neurritara egin behar zitzaion.

Beraz, proposamenekin ere etortzen zaizkizu?

Normalean ideia jakin batekin etortzen dira bezeroak, baina iruditzen bazait ideia hori ez dela beren ezaugarrietara guztiz egokitzen, neure proposamenak egiten dizkiet beraiek zuten ideia hori hobetzeko asmoz.

Zuretzat zein ezaugarri izan behar ditu soineko idealak?

Fina eta nabarmenkeriarik gabekoa izan behar du. Baina, batez ere, norbera ongi sentiarazi behar du.

Zein oihal mota dira egokienak horrelako lanetarako?

Emakumezkoen soinekoetarako oihal mota asko erabili daitezke: zeta, tula, satina, organza, txifoia, mikatua, harribitxia... Gizonezkoen trajeetarako, aldiz, artilezko, lihozko eta kotoizko oihalak erabiltzen dira.

Bezeroek zer eskatu ohi dute?

Emakumezkoek denetarik eskatu ohi didate; izan ere, bakoitzak bere estiloa du. Soineko luzeak, laburrak, eskote handidunak, buztanekoak, hegalditsuak edo zuzenak. Gizonezkoen trajeen artean, berriaz, ez da alde handirik egoten.

Hala ere, egin izan didate eskaera bitxirik. Behin senargai batek jakaren forrua burezurrez eta japoniar irudien marrazkiz betea izatea nahi zuela esan zidan.

Bada inoiz egitea gustatuko litzazukeen lanik?

Egunen batean, seme-alabak ezkonduko balira, asko gustatuko litzaidake haien jantziak egitea.



«Seme-alabak ezkonduko balira, asko gustatuko litzaidake haien jantziak egitea»

«Modaren arabera joera aldatu egiten da, eta ezkontza motak ere zerikusi handia izan dezake»

Askok aldatu al dira ezkontza jantzien joerak?

Josten hasi nintzenetik gaur egunera, baietz esango nuke. Lehengo jantziak klasikoagoak ziren. Modaren arabera joera aldatu egiten da, eta ezkontza motak ere zerikusi handia izan dezake; ezkontza erlijiosoa ala zibila den, esaterako.

Jantziak neurritara egiteko ohi-turirik ba al da?

Neurritarako jantzigintza beti egin izan da. Agian, gehiago egiten zen lehen, ez baitzegoen hainbeste andregaien jantzi denda. Dena den, ohitura hori ez da galdu, andregaiak nahi dutena ez baitute beti dendetan aurkitzen.

Ezkontzaiak gainerako bezeroak baino exijenteagoak al dira?

Oro har, neurritara egindako jantzi bat egin nahi duten bezero guztiak dira zorrotzak, batez



Baquedanok ezkongai bati egindako soinekoa. UTZITAKOIA

ere jantzia ekitaldi garrantzitsu baterako baldin bada, hala nola graduazio bat, bataioa, jaunartzea... Egia da ezkongaiak gainerako bezeroak baino urduriago egoten direla, egun handia perfektua izatea nahi dutelako. Eta ez ezkongaiak bakarrik, baita ezkongaien amak ere, batez ere amabitxiak baldin badira. Bezero guztiak modu berean tratatzen ditut, baina emaztegaientzat ezkontza eguna oso berezia izaten

da, eta horregatik saiatzen naiz hurbiltasun handiagoa eskaintzen, konfiantza eta lasaitasuna transmititzeko asmoz.

Gustuko lana duzu, beraz, joskintza?

Bai, asko gustatzen zait egiten dudana lana; urte asko daramatzat josten, eta asko gozatzen dut egiten dudanarekin. Umetan ikasi nuen josten; izan ere, amona jostuna zen eta arropak neurritara egiten zituen. Sobran gelditzen zitzaion oihalare-

kin panpinentzako soinekoak egiten hasi nintzen. Geroxeago, 16 urte nituenean, ebaketa eta jantzigintza ikasteko izena eman nuen, jostun ibilbideari hasiera emanez. Egin ditudan beste lan batzuetan ere eduki izan dut zuzeneko tratua bezeroekin, baina joskintzaren emaitza askoz ere atseginagoa da. Sormen handiko lana da, eta horrek bezeroekin harreman estuagoa izatea ahalbidetzen du.



Muniosoro erretegia

Eguneko menua, karta
eta ekitaldi bereziak

Oikia 54, Zumaia · 943-14 78 91





Eztei bidaiarako lekurik onenak

Mundua leku eta txoko ederrez josita dago, baina badira 2025. urtean modan dauden hainbat toki, batik bat, eztei bidaia ahaztezina bizi nahi baldin baduzu. Horiek ezagutu nahi?

Seychelles uharteetako hondartza bat. MICHAELA RIMAKOVA (UNSPLASH)

Ezkontza eguna igaro da, eta ziu-rrerik nekaturta egongo zara, hainbat hilabetez jardun baituzu egun berezi hori antolatzen. Orain atseden hartzeko eta senarraz edo emateaz gozatzeko txanda da. Baina non egin dezakezu hori? Zein da zuen beharretara eta gustuetara egokitzen den tokia?

Honako hauek dira ezkon bidaiarako lekua aukeratzekoan kontuan hartu behar dituzun arloak:

• **Eguraldia.** Eztei bidaiarako lekurik onenak aukeratzeko, ezinbestekoa da bidaiatzea nahi duzuen garaian leku horretan zer klima egingo duen jakitea. Izan ere, aukeratu

duzuen herrialdean euri jasen bolada baldin bada, argi dago ez dela aukerarik onena izango. Horregatik, garrantzitsua da bidaietan aditua den norbaiten bidez informatzea, bidaia egingo duzuen lekuko klima ezagutzeko eta bisitatzeko unerik onena zein den jakiteko.

• **Denbora.** Ohikoa da bidaiatuko duzun lekua sakon ezagutu nahi izatea, denbora ahalik eta gehien aprobetxatuz. Horregatik, bidaiarako dituzuen egunen arabera, leku batzuk edo besteak aukeratzeko da onena. Eztei bidaia-aren amaieran egun batzuk libre uztea ere komeni da: leku erromantiko batean intimitatea izateko eta pilak kargatuta itzuli ahal izateko.

• **Bidaia mota.** Lekurik onena aukeratzeko, kontuan hartu behar dira norbere nortasuna eta gustuak. Zer bidaia mota egin nahi duzuen erabaki behar duzue, hau da, zer nahi duzuen: lasaitasuna, abentura, natura, kultura, hiriak, gastronomia... Aukera ugari daude, izan ere. Bikote bakoitza bakoitza da, eta bakoitzaren ideien eta gustuen arabera hautatu behar da lekua.

• **Aurrekontua.** Aurrekontuak garrantzi handia du bidaiaren kalitateari eta ostatuei dagokienez. Izan ere, hainbat bidaiari profil daude, eta horietako bakoitzak helburu desberdinak ditu: ingurunean eta tokiko kulturaren zerbait berezia edo desberdina bizi nahi dutenak; luxua, esku-

sibotasuna edota nazioarteko kateen hotelak nahi dituztenak; eta arlo guztietan turismo arduratsua egin nahi dutenak. Aukeratu, beraz, zure ezkon bidaiarako lekua gustuen eta aurrekontuaren arabera.

Arlo horiek guztiak aztertu ondoren, eztei bidaia nora egin erabakitzea soilik geldituko zaizu. Jakin ezazu honako leku edo helmuga hauek direla 2025. urtean modan daudenak:

Costa Rica

Dena. Hori da Costa Ricak eskaintzen duena: hondartza, abentura, lasaitasuna, natura, paisaia ederrak eta ostatu zoragarriak naturaren erdian. Bikote asko erakartzen dituen beste kontu bat da herrialdeko leku

guztiak barne hegaldirik hartu gabe bisitatzeko aukera izatea.

Seychelle uharteak

Uharte multzo ikusgarria da, ur gardendun eta harea zuri-dun hondartzekin. Helmuga turistiko dinamikoa da, abentura jarduera asko egiteko eta hainbat uharte bisitatzeko aukera ematen duelako. Biztanle gutxi, askotariko uharteak eta leku idilikoetan kokatutako hotelak izateak pribatutasun osoz gozatzeko aukera eskaintzen die bidaiariei.

Thailandia

Eztei bidaietan azken boladan modan egon den lekuetako bat da Thailandia. Herrialde exotikoa da, kultura oso desberdina duena. Bangkokeko hiri erral-



Gepardoa Afrikako safari batean. LEE BERND (UNSPLASH)



Kiotoko Fushimi Inari santutegirako bidea. LIN MAI (UNSPLASH)

Aukeratu lekua zuen gustuen eta aurrekontuaren arabera

2025. urtean Costa Rica, Thailandia, Afrika edo Australia daude modan

doia esploratzea, iparraldeko paisaia hostotsuekin eta tenplu izugarriekin liluratzea nahiz naturan animaliekin elkarre-raginean jarduerak gauzatzea dira egin gabe gelditzerik ez dagoen ekintzak. Thailandia aukeratuz gero, hartu denbora edo egun batzuk atsedenerako, eta gozatu hango ur berodun eta gardendun hondartza zora-garriez.

Afrika

Leku exotikoak gustuko baldin badituzu, Afrika hautatu behar

duzue. Kontinente erraldoi horretan ezagutuko dituzue betirako grabatuta geratuko zaizkizuen lekuak. Aprobetxatu safari bat egiteko, Tanzanian edo Botswanan, esaterako. Paisaia paregabeaz eta animalia basatien edertasunaz gozatuko duzue, baina baita ostatuen la-saitasunaz eta intimitateaz ere, eta munduan dauden ilunabar onenak ikusteko parada izango duzue.

Japonia

Gaur egungo klasikoetako bat da. Japonia oso herrialde berezia da, sorpresaz betea; kaosa nonahi aurkituko duzu eta galtzea erraza da, baina atsedeen hartzeko, erlaxatzeko eta pilak kargatzeko santutegia ere izan daiteke. Antzinako tradizioen eta azken joeren (kultura, artea eta gastronomia) arteko konbinazioa aurkituko duzue herrialde horretan. Zalapartak eta lasai-

tasunak elkarri eskua ematen dioten lekua da Japonia, eta imajina ditzakezuen planik onenak eskaintzen ditu.

Australia

Benetan deskonektatu nahi baldin baduzue, joan Australiara. Eta ez soilik urrunen dagoen herrialdea delako, baita milioika aukera eskaintzen dituen paradisua delako ere. Lehenengo gomendioa Sydney eta Melbourne hiriak bisitatzea da. Lehenengo hiri horretan badira derrigorrezkoak diren geldialdi batzuk: Opera House eta Manly edo Bondie hondartzak. Bigarren hirian, berriz, Fitzroy, Federation Square edo Victoria museoa dira ikusi beharreko lekuetako batzuk. Eta animalien maitaleak bazarete, ezin duzue Kangaroo Island bisitatu gabe gelditu; Australiako fauna ezagutzeko aukera izango duzun naturgune basatia da.

	JAPONIA Apirila BETETA
	MAROKO Ekaina Baigera
	SALAMANCA Ekaina Baigera
	NORVEGIA Uztaila BETETA
	ERRUMANIA TREKKINGA Abuztua
	KILIMANJARO TREKKINGA Abuztua
	BRETAİNIA NORMANDIA Iraila Baigera AZKEN PLAZAK
	ETIOPIA Iraila AZKEN PLAZAK
	PERU Urria
	RALLY SAN MARINO LEGENDA Urria BETETA
	KUBA Azaroa AZKEN PLAZAK
	ISTANBUL Abendua AZKEN PLAZAK

Jose Artetxe kalea 14, Azpeitia
943-81 06 73
www.halconbidaia.kazpeitia.com

Halcon BIDAIAK AZPEITIA

f i



Jarri arreta loreetan eta horien esanahietan

Ezkontza bat edertzeaz gain, emozioak transmititzen dituzte loreek. Emaztegaiaren sortakoek ez ezik, ezkontza lekuaren apainketako lore bakoitzak ere berezia izan behar du. Ez du balio edozein lorek.

Jakin badakigu ezkontza baterako hamaika xehetasun hartu behar izaten direla kontuan eta zaila dela horien guztien gainean egotea, baina loreek me-rezi dute arreta berezia eskaintzea. Izan ere, ezkontza baterako lore perfektuak aukeratzea ez da estetika kontua soilik, baita esanahi kontua ere.

Honako hauek dira lore ezagunenetako batzuk eta haien sinbolismoa:

- **Arrosak:** Betirako maitasuna eta amodioa. Ezin hobeak emaztegaiaren sortetarako eta mahai gaineko apaingarrietarako.
- **Peoniak:** Ezkongaien oparotasuna eta zoriontasuna. Udaberriko ezkontzetarako aproposak.
- **Orkideak:** Sofistikazioa eta eksklusibotasuna. Xehetasun modernoetarako aproposak.
- **Tulipak:** Maitasun perfektua eta dotorezia. Ezkontza minimalistetara eta erromantikoetara egokitzen dira.
- **Hortentsiak:** Edertasuna eta esker ona. Luxuzko ukitua ematen diote dekorazioari.

• **Lirioak:** Birjintasuna eta debozioa. Ezin hobeak dira elizetan edo aire zabaleko zeremonietan erabiltzeko.

Lore bakoitzak xarma berezia du, eta eragin positiboa izango du horietako bakoitza ezkontzak izango duen kolore paletaekin ondo konbinatzeak; izan ere, giro harmoniatsua eta sofistikatu eman-go dio guneari.

Xehetasunak

Emaztegaiaren sortaz gain, garrantzitsua da xehetasunak zaintzea ere. Ezkontza edo ospakizuna izango den lekuaren apainketak edota gonbidatuen jantzietan aurki daitezkeen xehetasunek ezkontzaren estetika markatzen lagun dezakete.

Adibidez, ezkontzan amabitxiak, aita-bitxiak edo ohorezko damak baldin badaude, funtsezko papera bete dezakete ezkontzan eta ospakizunean; haien loreek ezkontzaren estetika orokorrari jarraitu behar diote. Pertsona horien loreak emaztegaiaren sortaren bertsio txikiagoak

Ezkontza baterako lore perfektuak aukeratzea ez da estetika kontua soilik

Emaztegaiaren sortaz gain, garrantzitsua da xehetasunak zaintzea ere

eta sinpleagoak izan ohi dira. Hona hemen aukera batzuk:

- Tonu leundun arrosak eta tulipak dituzten sortak, ezkontza erromantikoetarako.
- Izpilikuak, eukaliptoak eta peoniak dituzten basa sortak, bohemio estiloko ezkontzetarako.
- Ukitu sofistikatu baterako, aldiz, hortentsien eta lirioen konbinazioak.

Azkenaldiko joeretako bat da amabitxiak edo ohorezko damak lore freskodun eskumuturrekoak edo buruko txikiak eramatea. Xehetasun dotorea eskaintzen dute horiek.

Irène Altuna

Ezkontzak | Dekorazioa | Opariak

Loiolako Inazio Hiribidea, 25 | AZPEITIA
943-81 51 87 | 620 84 36 10
altunalaradenda@gmail.com |

KIRURI

JATETXEA



Euskal sukaldaritzako platerak prestatzen ditugu, kalitatezko errezetak lantzen ditugu. Edozein motatako ospakizunetara bideratuta bagaude ere, bezeroari egokitzen gatzaizkio, une edo leku bakoitzean. Hala ere, ez dugu alde batera uzten aldizkako bezeroa. Loiolako Santutegira begira terraza ederra dugu, edukiera desberdinetako sei jangela ditugu, handiak zein txikiak, eta kafetegia.

Loiolako Inazio Hiribidea 24, Azpeitia
943-81 56 08



aterpe

Herriko
merkatarien eta
ostalarien
**erakusleiho
digitala**



Jarri zure
saltokia eta
produktuak
edo **zerbitzuak**
gure
webgunean eta
**zabaldu
herrira**



Herritarrek
bertan **ikusi** ahal
izango dute
dendan duzuna,
baina **erosketa**
egitera,
ordaintzera eta
jasotzera, bertara
joan behar dute



GUKA

webguneetan